




OÑATI
dabilen herria



bejnke

OÑATIKO

Turismo Plan Estrategikoa

Oñati txokolatearen herrixa



Misioa eta Bisioa



Misioa

2025erako OÑATIRAKO MISIOA

Oñatik **erreferentziako turismo-eredu jasangarri eta inklusibo bat garatzearen aldeko apustua egiten du**, honako hauek oinarri hartuta:

Turismoaren balio-katean parte hartzen duten eragile guztien lankidetzaz.

Bere kultura- eta natura-ondarearen elementu bereizgarriari balio ematea, esperientzia-produktuak eta bizipenak sortu ahal izateko.

Turismo profesionala balio-kate turistikoan sartzea.

Horrek guztiak honetarako aukera eman du:

- 1 Ondare hori ezagutaraztea eta herritarren zati batek ondare horretaz gozatzeko bide ematea; izan ere, gaur egun, herritarrek ondare horren balioa ezagutzen dute, eta lekuaren preskriptore harroak dira.
- 2 Sektore osoaren turismo-lehiakortasuna hobetzea.
- 3 Dagoen eskaintza egokitzea gero eta segmentatuagoa, konprometituagoa eta arduratsuagoa den «eskari berri» batera, zeina Oñatiko turismoaren xede eta lehentasunezko turismo-merkatua den.
- 4 Okupazio-zifrak handitzea, sasoikotasunari aurre egitea, eta, beraz, turismo-garapen jasangarri eta iraunkorra lortzea.



Bisioa

Oñati, **barnealdeko udalerrri bat izanda, aitzindaria da Turismoaren Plan Estrategiko bat egiten**, eta benetako helmuga turistikoa jasagarria da Euskadiko turismoaren panoraman. **Bere kultura- eta natura-ondareari balioa eman dio, eta bisitarien profil jakin bat erakartzeko gai diren produktu turistikoa bereizgarri eta bereziak sortu ditu: arduratsuak eta konprometituak.**



Eskaintza kulturala, naturakoa, gastronomikoa eta profesionala sortu du, bere baliabideen potentzialtasunean eta benetakotasunean oinarrituta, eta ezinbesteko bisita bihurtu da Euskadi bisitatzen dutenentzat, bere eskaintzaren aniztasun eta kalitateagatik.



Jarduera turistikoa garrantzitsua da eta udalerriko ekonomia-jardueraren parte da.

Sektore profesional eta lehiakorra du, garapen-eredu horren protagonista.



Udalak, bisitaldia gozagarria izan dadin ziurtatzeko, zenbait tresna eta neurri erantsi ditu, egoera gatazkatsuak saihestu, eta **aurrera eginda helmuga-leku adimendun modura.**

Herritarrak, beren identitateaz eta tradizioez harro, ondare kultural eta natural nabarmena duen **herri atsegin honen preskriptore bilakatu dira.**





Jaso dugun lana eta
ondarea

Oñatin, turismoa, ez da gai berria...



Bisita kulturalak

Natura Turismoa





Industria Turismoa



Arantzazu eta bere esanahia...





Ekitaldiak

Kirola





Lortu duguna

+ Oñati Gaur

→ Gaur egunera arte...

Sektoreko apustua hazten, kalitatezko turismoa.

Ikono esanguratsuak, kultura, paisaia eta ondare balioetan.

Turismo eta mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua

Jatetxe eta ostatu eskaintzaren dibertsitatea, publiko guztientzako.

Beste baliabide eta osagarrien helmugekin elkarlana

Turismo bisitari eta egonaldien igoera (COVID-19 egoera aurretik).

→ Baina...

Elkarlan mentalitate sendoagoa beharra; Debagoiena elkarlanean.

IISJ eta Arantzazuko koordinazioan ,eta sektore pribatuko antolaketan.

Herriko eta eskualdeko mugikortasun /irisgarritasuna.

Turismo profesional/industrialari erantzutea.

Bisitariendako merkataria eskaintza mugatua.

Baliabide eta ideia berrien garapena.





Nora goaz/
Erronkak




Oñati Turismo Adimendunaren Helmuga

- Eskualdearekin **lan-esparru bat finkatzea**, baita herriko sektore publiko eta pribatuekin.
- **Zeharka lan egitea bisitariak jasotzen dituzten** udalerriko beste erakunde batzuekin.
- Kultura-ondarearen **erabilera turistikoa balioan jartzea** eta hobetzea.
- **Balio-kate turistikoan turismo industrialia** ere txertatzea.
- **Bisitarien portaerari eta profilari buruzko datuak** ezagutzea.
- **Produktu turistikoak lehenestea**, eskari erreal eta potentzial horren arabera.
- **Ad hoc ekintza plana burutzea eta komunikazio-kanpaina** bat diseinatzea, COVID-19aren osteko egoerara egokituta.




Zer egin nahi dugu?

+



Oñati Turismo Adimendunaren Helmuga





Norekin?



Turismo sektorearekin


Beste hainbat (primario e
industrial)

Herritarrekin



Nori zuzenduta





Ardatz estrategikoak



GOVERNANTZA ETA KUDEAKETA

- Beharrezkoa den publikoaren eta pribatuaren arteko, erakundeen arteko eta alderdien arteko lankidetzak.
- Beste balio-kate batzuk inplikatur: lehen sektorea, industria, kultura, Arantzazu Lab, aliantza estrategikoak...
- Herritarrak kontuan hartuta.
- Adostasuna, lankidetzak, parte-hartzea, oreka...



TURISMO LEKUA

- Espazio turistikoa hobetuz.
- Kultura- eta natura-ondareari balioa ematen berrituz.
- Mugikortasun iraunkorraren alde eginez.
- Biztanleentzako deserosotasun-egoerak arinduz.



TURISMO ESKAINTZAREN ETA PRODUKTUAREN HOBEKUNTZA ETA GARAPENA

- Xedeak lehenetsitako eskari batera bideratutako produktu iraunkorrak sortuz.
- Biztanleriaren ezagutza eta gozamenaren pentsatuz.



MARKETINA

- Zer komunikatu nahi dugu, nori eta nola? Mezuaren eta hitzen garrantzia.



LEHIAKORTASUNA, BERRIKUNTZA ETA ENPRESA GARAPENA

- Aldaketen unea, COVID agertokia eta COVID ostekoa. Helmuga seguru baten alde lan egiteko beharra.
- Etengabeko prestakuntza.



Ekintzak

+ Lehentsi diren ekintzak epe motzera...

- ➔ Elkarlana Arantzazu, IISJ, sektorea.
- ➔ Sistema teknologikoak, THA (Turismo Helmuga Adimentsua), garraioa, sarbide-aparkalekuak..
- ➔ Sancti Spiritus erakina balioan jartzea eta beste baliabide batzuekin lotzea.
- ➔ Basquetourreko programen jarraibidea(ondare industrialara, familia turismoa, ekoturismoa...)
- ➔ Sektoreari lagundu eta HTA ziurtagiria Debagoiengan.
- ➔ Oñati turismo-marka definitu eta industria informazioa landu.





OÑATI
dabilen herria